Sail Egitarau Txostena - GASTUAK
Memoria Departamento Programa - GASTOS

SAILA / *DEPARTAMENTO*	ATALA / *SECCIÓN*	FUNTZIONALA / *FUNCIONAL*
05. Ogasuna eta Finantzak **05.** ***Hacienda y Finanzas***	**03.** Auzitegi Ekonomiko-Administratiboa **03.** *Tribunal Económico-Administrativo*	**932.121** Ekonomia-Administrazioko Erreklamazioei buruzko Ebazpen **932.121** *Resolución de Reclamaciones Económico-Administrativas*

Ekonomia eta Administrazio Kontuetarako Bizkaiko Foru Epaitegia

Bizkaiko Foru Auzitegi Ekonomiko Administratiboa Bizkaiko Foru Ogasunak jaulkitzen dituen zergen aplikazioari eta zerga-zehapenen ezarpenari dagokienez berrikusteko funtzioa egiten duen organoa da. Auzitegiak instantzia bakarrean jarduten du eta doako prozedura eta izaera askea duena da. Halaber, Auzitegiak Bizkaiko Foru Aldundiaren zuzenbide publikoko beste sarrera batzuen bilketen kasuan jarduten du.

Aurreikuspenen arabera, 2026an 1.000 erreklamazio inguru aurkeztuko dira.

Datorren urtean, Bizkaiko Foru Auzitegi Ekonomiko Administratiboak, Lantikekin lankidetzan, prozedura ekonomiko-administratiboaren kudeatzaile berritzailea garatzen jarraituko du, faseen kudeaketa arinagoa eta automatizatuagoa ahalbidetzeko. Horrek erreklamazioak ebazteko epea murriztea ekarriko du, erreklamatzaileen mesedetan.

Asmo handiko proiektua da, eta, horri esker, auzitegiak erreklamazioak osorik izapidetu ahal izango ditu, azken urteotan Foru Aldundia lantzen ari den espedienteen eta gaien kudeatzaile berriaren bidez.

Hura ezartzeak erreklamatzaileei lagunduko die euren erreklamazioen kudeaketaren jarraipen hobea egiten, Foru Aldundiaren egoitza elektronikoko herritarren karpetara sartuz. Berebat, bide emango du espediente guztiak egoitza elektroniko horretan automatikoki agerian jartzeko, eta horrek nabarmen hobetuko du auzitegiak ematen duen zerbitzua, kontsulta egiteko aukera emango baitu aurrez aurre agertu beharrik gabe.

El Tribunal Económico-Administrativo Foral de Bizkaia

El Tribunal Económico-Administrativo Foral de Bizkaia es el órgano que, en única instancia y mediante un procedimiento gratuito y con carácter independiente, ejerce la función revisora de los actos de aplicación de los tributos y de imposición de sanciones tributarias dictados por la Hacienda Foral de Bizkaia, así como los de recaudación de otros ingresos de derecho público de la Diputación Foral de Bizkaia.

Se prevé que durante el año 2026 el número de las reclamaciones presentadas se aproxime a las 1.000.

Durante el próximo año el Tribunal Económico-administrativo Foral de Bizkaia continuará desarrollando, en colaboración con Lantik, el novedoso gestor del procedimiento económico-administrativo, diseñado con el fin de posibilitar una gestión más ágil y automatizada de sus diversas fases, lo cual redundará en una reducción en el plazo de resolución de las reclamaciones, en beneficio de las personas reclamantes.

Se trata de un ambicioso proyecto que permitirá al Tribunal realizar la entera tramitación de las reclamaciones mediante el nuevo Gestor de expedientes y asuntos en cuyo despliegue viene trabajando en los últimos años la Diputación Foral.

Su implementación facilitará un mejor seguimiento de la gestión de las reclamaciones por parte de las personas reclamantes, mediante el acceso a la Carpeta ciudadana en la sede electrónica de la Diputación Foral. Asimismo, posibilitará efectuar la puesta de manifiesto de todos los expedientes en dicha sede electrónica de manera automática, lo cual redundará en una significativa mejora del servicio prestado por el Tribunal, al permitir su consulta sin necesidad de acudir presencialmente.

Sail Egitarau Txostena - GASTUAK
Memoria Departamento Programa - GASTOS

SAILA / *DEPARTAMENTO*	ATALA / *SECCIÓN*	FUNTZIONALA / *FUNCIONAL*
05. Ogasuna eta Finantzak **05.** ***Hacienda y Finanzas***	**03.** Auzitegi Ekonomiko-Administratiboa **03.** *Tribunal Económico-Administrativo*	**932.121** Ekonomia-Administrazioko Erreklamazioei buruzko Ebazpen **932.121** *Resolución de Reclamaciones Económico-Administrativas*

2025ean, proiektuaren ildo orokorrak diseinatu dira, eta 2026an gauzatu beharreko garapen-faseak planifikatu dira, ekitaldi horren amaieran ezarri ahal izango dela aurreikusita.

Ezarpen horrek espedienteen barne-kudeaketa errotik aldaraziko du, erabat telematikoki garatzera joko baita, eta, horren ondorioz, paper gutxiago erabiliko da.

Azkenik, auzitegiak bere jarduketen zabalkundea egiten jarraituko du, garrantzitsuentzat jotzen dituen erabakiak bere webgunean argitaratuz, hartutako irizpideen berri emateko bai zergadunei bai Foru Ogasuneko organoei.

En el año 2025 se han diseñado las líneas generales del proyecto y se han planificado las fases para su desarrollo a ejecutar durante el 2026, con la previsión de que pueda implementarse a final de dicho ejercicio.

Esta implementación supondrá también una modificación radical de la gestión interna de los expedientes hacia su desarrollo de manera completamente telemática, con la consiguiente disminución del uso del papel.

Por último, el Tribunal continuará con la labor divulgadora de sus actuaciones, mediante la publicación en su página web de aquellos acuerdos que considera más relevantes, a fin de hacer partícipes de los criterios adoptados tanto a los y las contribuyentes, como a los diversos órganos de la Hacienda Foral.